

XAKEKO TALDEKAKO EUSKAL LIGA.

OHOREZKO MAILA.

NATURGAS SESTAO A TALDE TXAPELDUNA.

Maxime Vachier-Lagrave (2.718): Partida batean, 0'5 puntu (% 50).
Alesandr Moiseenko (2.677): Partida batean, 0'5 puntu (% 50).
Andrei Istratescu (2.624): 2 partidatan, 1'5 puntu (% 75).
Romain Edouard (2.620): 4 partidatan, 3 puntu (% 75).
Stuart Conquest (2.563): 5 partidatan, 4 puntu (% 80).
Salvador Gabriel Del Rio De Angelis (2.544): 7 partidatan, 6 puntu (% 85'71).
Jean Noel Riff (2.500): 2 partidatan, 1'5 puntu (% 75).
Alfonso Romero Holmes (2.515): 6 partidatan, 5'5 puntu (% 91'67).
Juan Mario Gomez Esteban (2.489): 8 partidatan, 8 puntu (% 100).

36 partida jokatu ditu Naturgas Sestao A taldeak. Horietatik, bat bera ere ez du galdu.

Eraginkortasun handia erakutsi dute jokalariek guztiek. Eraginkorrenetatik eraginkorrena, Mario Gomez beteroa. Zortitik zortzi: Hori da marka! laz 9tik 5'5 puntu egin zituen eta Sestaoren porrotean errudun nagusia izan zen. Ederki gainditu du makula hori, 2010eko Txapelketan. Alfonso Romero, Gabriel Del Rio eta Stuart Conquest ere oso ongi ibili dira aurtan.

GROS TALDE TXAPELDUNORDEA.

Cristian Bauer (2.594): 2 partidatan, 1'5 puntu (% 75).
Hicham Hamdouchi (2.590): Partida batean, 0'5 puntu (% 50).
Roberto Cifuentes Parada (2.525): Partida batean, 0'5 puntu (% 50).
Alejandro Franco Alonso (2.463): 8 partidatan, 5'5 puntu (% 68'75).
Mikel Huerga Leatxe (2.435): 8 partidatan, 6 puntu (% 75).
Santiago Gonzalez De la Torre (2.402): 8 partidatan, 6'5 puntu (% 81'25).
Iñigo Argandoña Riveiro (2.385): 8 partidatan, 7 puntu (% 87'50).

Alejandro Franco izan da puntu gehien galdu duen jokalaria. Bigarren postua baloratzeko, kontutan hartu beharra dago elo gehiago dutela Sestaoko jokalariek. Portzentaia nahiko txukunak lortu dituzte Groseko xakelariek. Arazoa izan da Sestao zeruan ibili dela.

RUTA DE EUROPA HIRUGARREN SAILKATUTAKO TALDEA.

Jesus Iruzubieta Villaluenga (2.416): 9 partidatan, 4 puntu (% 44'44).
Alejandro Ruiz Gomez (2.357): 9 partidatan, 6 puntu (% 66'67).
Cristobal Limeres Guiance (2.250): 9 partidatan, 7 puntu (% 77'78).

Isidro Gete Rodriguez (2.132): 9 partidatan, 7 puntu (% 77'78).

Ordezkoek jokatu behar ez dutenean, emaitza hobeak ateratzen direla erakutsi du Ruta de Europak. Lau jokalariekin, oso etekin ederra. Hobeto ibili dira 3. eta 4. mahaietan Cristobal Limeres eta Isidro Gete. Normal jo daiteke, Jesus Iruzubietak eta Alejandro Ruizek partida zailagoak izan dituztelako.

SAN VIATOR LAUGARREN SAILKATUTAKO TALDEA.

Erabat finkatu da Ohorezko mailan talde arabar hau. Iaz zazpigarren geratu zen eta bi punturengatik saihestu zuen jaitsiera. Aurten, laugarren postu distiratsua lortu du David Astasio buru duen taldeak.

BATALLA BOSGARREN SAILKATUTAKO TALDEA.

Jokalaria gutxi erabilia, beti ongi geratzen da Pasaiaiko taldea. Aurten ere ez du arazorik izan mailari eusteko. Ezberdinketa sistemagatik San Viatorren atzetik geratu da, puntuz berdinduta.

ORVINA A SEIGARREN SAILKATUTAKO TALDEA.

Agian, gehiago egiteko gai zen, baina jokalaria garrantzitsu batzuk B taldean aritu direnez, A taldea herren ibili da askotan, laukote indartsua osatu ezinean. Iaz, laugarren; aurten, seigarren. Orvina B-ren jaitsierak A taldea indartuko du eta aukera gehiago izanen du datorren urtean.

EASO ZAZPIGARREN SAILKATUTAKO TALDEA.

Easo bosgarren sailkatu zen iaz Lehenengo Mailan. Naturgas Sestao B eta Orvina B taldeek igoera lortzeko aukerarik ez zutenenez, igo zen.

Erraz mantendu du maila, baina batez ere araudia aurten aldatuta zegoelako (soilik bi talde jaisten ziren).

ARLUTZ ZORTZIGARREN SAILKATUTAKO TALDEA.

Aretxabaletako taldea ederki moldatzen da jokalaria gutxirekin. Maila mantendu du, araudiaren aldaketarengatik eta bi talde nahiko gaizki aritu direlako. Arlutz berria zen Ohorezko Mailan.

BARAKALDO BEDERATZIGARREN SAILKATUTAKO TALDEA.

Barakaldo seigarren sailkatu zen iaz, 14 puntu lortuta. Aurten, azken aurrekoa izan da, 9 puntuz. Balantze nahiko kaxkarra, baina araudiaren aldaketak salbatu du, Rey Ardiden aurkako kanporaketa ozta-ozta gaindituta.

OBERENA HAMARGARREN SAILKATUTAKO TALDEA.

Bere jokalaririk onenak Nafarroako Txapelketarako gorde ditu. Erabaki horren ondorioa gordina izan da: Lau puntu eskas (bat jokatu gabe lortuta).

LEHENENGO MAILA.

ZURI BALTZA TALDE TXAPELDUNA.

Juan Manuel Salinero De Prado (2.162): 8 partidatan, 3'5 puntu (% 43'75).
Gerardo Fernandez Hernandez (2.190): 8 partidatan, 4'5 puntu (% 56'25).
Paulo Alberdi Sololuce (2.149): 9 partidatan, 7 puntu (% 77'78).
David Martinez Pelaez (1.978): 7 partidatan, 4 puntu (% 57'14).
Maximo Hernandez Garcia (2.030): 4 partidatan, 2'5 puntu (% 62'50).

Bigarren aldiz nagusitu da Lehenengo Mailan. Azken momentura arte borrokatu beharra izan du, baina azkeneko jardunaldian Fomento Cultural talde errenteriarren aurka 3-1 irabazita, txapelketa bikaina osatu du. Paulo Alberdi izan da bere jokalaririk onena.

NATURGAS SESTAO B TALDE TXAPELDUNORDEA.

Carlos Nava Pereda (2.245): 9 partidatan, 5 puntu (% 55'56).
Sergio Trigo Urquijo (2.252): 9 partidatan, 6'5 puntu (% 72'22).
Eneko Wu (2.117): 8 partidatan, 3'5 puntu (% 43'75).
Alex Rodriguez Gonzalez (2.040): 9 partidatan, 6'5 puntu (% 72'22).
Javier Marchena Hurtado (1.780): Partida batean, 0 puntu (% 0).

Fitxaketek B taldera bidali dituzte jokalaria batzuk. Ondorioa: Sestao B ere talde boteretsua da. Iaz bezala, igoera gabe geratu da, B taldeek Ohorezko Mailan lehiatzerik ez dutelako.

REY ARDID HIRUGARREN SAILKATUTAKO TALDEA.

Iñaki Arnaez Gil (2.242): 11 partidatan, 5 puntu (% 45'45).
Felipe Arnold Perrier (2.148): 8 partidatan, 5'5 puntu (% 68'75).
Xabier Galarza Docampo (2.147): 11 partidatan, 8 puntu (% 72'73).
Ricardo Guilarte (2.102): 3 partidatan, 2 puntu (% 66'67).
Mario Basto Auzmendi (2.089): 10 partidatan, 3'5 puntu (% 35).
Ignacio Santos Crespo (2.026 Euskal elokoa): Partida batean, 0 puntu (% 0).

Nahiko ongi ibili da Bilboko talde historikoa, baina huts batek denboraldia zapuztu dio. Igotzeko kanporaketako itzuliko partidatan, talde titularra ez da aritu eta gutxiengatik igo gabe geratu da.

GAINONTZEKO TALDEAK.

Oso estua da borroka Lehenengo Mailan. Fomento Cultural igotzeko borrokatu da. Azken eguneko porrotak ia Herrialdeko Txapelketara bidali du (puntu erdiak salbatu du).

Ongi hasi zen Leioako Alzaga, baina azkenean jaitsiera ez du saihesterik izan. Abadiñok Euskal Ligari uko eginen omen dionez, manten daiteke.

Eibarrek alderantzizko ibilbidea egin du: Gaizki hasi eta bukaera ikusgarrian salbazioa lortu.

Orvina B izan zen kaltetua. Distirarik gabe, maila erraz mantenduko zuela zirudien. Baina azken bi egunetan Mikel Gurea eta Eibarren aurka huts egin eta jaitsi da.

Amurrio eta Mikel Gurea mailari eusteko aukerarik gabe ibili dira ia Txapelketa osoan.

2010-03-21.

Iturria: "<http://www.ajedrezvasco.com>" webgunea eta Euskal Xake Federakuntza.